

“Elkarte bat sortu”

2. Argitalpena



“Elkarte bat sortu”

2. Argitalpena



Argitaratzen du: Vitoria-Gasteizko Udala.

Egilea: Mamen Díaz de Sarralde Erdu Elkarte eta Boluntaritzako Agentziarentzat.

Laguntzen dute: Arabako Foru Aldundia eta Vital Kutxaren Gizarte Ekintza.

Diseinu eta maketazioa: José Antonio Ugarte.

Itzulpenak: Aixé S.L.

Inprimatzen du: Gráficas Vicuña.

Lege Gordailua: VI 522/06

1. Argitalpena: 2005

2. Argitalpena: 2006

A large, stylized sun graphic in the top right corner, with rays and a spiral center, rendered in a light gray color.

AURKIBIDEA

Sarrera

Gidaren aurkezpena	5
--------------------------	---

Elkarte bat zer den

Elkartearen definizioa	7
Ezaugarriak	7
Elkarte/Koordinadora/Federazio terminoen arteko desberdintasuna	8

Elkarte bat nola sortu

Elkarteen erregistroa: xedea eta eremua	9
Eskakizunak	10
Beharrezko dokumentazioa	11
Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzeko jarraitu beharreko urratsak	15
Elkartearen liburuak	15
Identifikazio Fiskaleko Zenbakia eskatzea. Foru Ogasuna	16
Banku-kontu bat irekitzea	16
Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzeko jarraitu beharreko urratsak	16
Estatutuak aldatzea	17



AURKIBIDEA

Boluntarioak eta Boluntariotzako Elkartekin duten harremana

Boluntariotzaren Legea	19
Boluntariotza/Boluntariotzako Erakundeak	19
Boluntariotzako Erakundeek boluntarioekin duten harremana	23
Administrazioaren eta boluntarioak dituzten erakundeen arteko harremanak	25

Legeria

Oinarrizko araudi erregulatuak	31
Martxoaren 22ko 1/2000 Lege Organikoak, elkartzeko eskubidea erregulatzen duenak, aurkezten dituen aldaketak	32

Elkarteen betebeharrak fiskalak	40
--	----



Aurkezpena

ERDU Elkarte eta Bolondresentzako Agentziak sortu zenetik egin duen zereginetako bat izan da mota guztietako informazioa zabaltzea, elkarreak eta parte hartzea sustatzeko, gure inguruko ahalik eta herritar gehienaren artean.

Azken urteetan informatzeko egin den lan horren emaitza izan da eskuartean duzun eskuliburu xume hau. Koaderno honen helburua lan tresna izatea da, ohiko argitalpena izatea baino gehiago. Horrela, elkarre bat sortu nahi duten pertsonen bizkor eta eraginkortasunez aurkitu ahal izango dituzte elkarre eratzeko behar diren dokumentuak.

Lan honi egitura erraza eta argia ematen saiatu gara. Honako hauek azaltzen saiatu gara: zer den elkarre bat; elkarre baterako zer izapide egin behar diren, eta non; zer diren estatutuak, zuzendaritza batzordea; elkarreetan egiten den borondatezko lana; zer lege eta arau bete behar dituzten elkarreek; zer zerga betebeharrak dituzten... Baina ez dugu larritu behar, dena ondo ondo azalduta dago, eta, azalpenekin batera, oinarritzko dokumentuak daude, formatu digitalean, geure beharretara moldatu ahal izateko edozein ordenagailutan.

Azken batean, garrantzitsuena da beste pertsona batzuekin batera elkarre sortzeko ideia izatea, edozein motatako elkarre dela ere, eguneroko bizitzaren alderdiren bat hobetzen laguntzeko; gainerakoa... pixkanaka pixkanaka egingo dugu.



“Elkarte bat sortu”



Elkarte bat zer den

Elkarteak pertsonak elkartuz osatutako taldeak dira, borondatez eratzen direnak talde-jarduera bat modu egonkorrean burutzeko; demokratikoki antolatzen dira, irabazi-asmorik gabe, eta, formalki behintzat, independenteak izaten dira Estatuarekiko, alderdi politikoekeko eta enpresekiko.

Irabazi-asmorik Gabeko Erakundeak nortasun juridiko propioko subjektu gisa osatzen dira, ordenamendu juridikoak araututako betebeharrak eta eskubideak dituzte, eta elkarte, fundazio eta/edo federazio formarekin eratu daitezke.

Irabazi-asmorik gabekoa izateak esan nahi du urteko irabazi edo mozkin ekonomikoak ezin direla bazkideen artean banatu. Nolanahi ere, urtearen amaieran soberakin ekonomikoak eduki daitezke, posible da elkartean kontratatu laboralak edukitzea, eta soberakin ekonomikoak sor ditzaketen jarduera ekonomikoak egin daitezke. Logikoki, soberakin horiek berriro inbertitu beharko dira erakundearen helburuak betetzeko xedearekin.

Laburbilduz, hauek izango lirateke elkarte baten funtsezko **ezaugarriak**:

- Gutxienez hiru pertsonak osatutako pertsona-taldea izan behar du.
- Helburu eta/edo jarduera komunak planteatu behar dituzte.
- Eskaeren, erantzunen edo zuzenbide-gakoan eskatzen diren soluzioen formulazioan jardun behar dute.
- Funtzionamendu demokratikoa eduki behar dute.
- Ez dute irabazi-asmorik izango.
- Independentek izango dira.

Administrazio-funtzionamenduaren ikuspuntutik begiratuta, elkarte bat “legezkotzat” jotzen da hala inskribatuta dagonean Elkarteen Erregistro Orokorrean, kasu honetan Eusko Jaurlaritzakoan. Halaber, elkartearen eremua Estatukoa bada, Barne Ministerioko Erregistroan inskribatu beharko da.

Elkarte bat ez badago erregistratuta dagokion Erregistroan, horrek ez du esan nahi ilegala denik, Espainiako Konstituzioak errekonozitu egiten baititu biltzeko eta elkartzeko eskubideak. Horrela, bada, elkarte bat ilegaltzat jotzeko, judizialki hala kalifikatuta egon behar du, legez kontrako helburuak edukitzeagatik.

Elkarteak eta Federazioak edo Koordinadorak bereiz daitezke; hainbat elkarte elkartuz osatutako erakundeak izango lirateke Federazioak edo Koordinadorak. Elkarteen eta Federazio edo Koordinadoreen funtzionamenduaren alderdi legalak, fiskalak, ekonomikoak, administratiboak eta abar ia berdinak dira; desberdintasun bakar bat dago: Federazio edo Koordinadoretako bazkideak pertsona juridikoak izango dira, hau da, Federazio edo Koordinadorako kide diren Elkarteak, eta halaxe zehaztuko da estatutuetan.

Elkarte bat nola sortu

Elkarteen erregistroa: xedea eta eremua

Euren funtzioak Euskadin garatzen dituzten eta Estatutuetan hala adierazten duten Elkarteen eta Elkarre Batasunen eraketak, aldaketak eta desegiteak inskribatzeaz arduratzen den bulego publikoa da **Elkarteen Erregistroa**.

Alde batera uzten dira elkarte politikoak, sindikatu-elkarteak, enpresa-erakundeak, elizak, konfesio eta komunitate erlijiosoak, kirol-federazioak, ondasunen eta jabeen komunitateak, sozietate-kontratu bidez eraendutako entitateak, mutualitateak, aldi baterako enpresa-batasunak eta interes ekonomikoko taldeak.



Euskadiko Erregistroekin harremanetan jartzeko argibideak:

Araban:

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
Donostia kalea, 1
01010 Gasteiz
Telefonoa : 945-019087
e-maila: just-jurid-alava@ej-gv.es

Gipuzkoan:

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
Vitoria-Gasteiz 3, 3.a
20018 Donostia
Telefonoa : 943-022951 / 943-022952
e-maila: just-jurid-gipuzkoa@ej-gv.es

Bizkaian:

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
Kale Nagusia 85, beheko solairua
48011 - Bilbo.
Telefonoa : 94-4031371 / 94-4031372

Eskakizunak

Elkarte bat sortu ahal izateko, gutxienez hiru pertsona behar dira, eta elkarteari dagokion erregistroan inskribatzeko behar den dokumentazioa prestatu behar da.



Aurkeztu beharreko agiriak

Eraketa-akta

Elkarteak gutxienez hiru pertsonaren akordio bidez eratzen dira, kide guztiek onetsitako Estatutuak dituen entitate antolatatu bat osatzeko helburuarekin. Akordioa Akta bidez formalizatu ahal izango da, dokumentu publikoan edo pribatuan; Akta horretan elkartzeko borondatea hitzez jasoko da, eta entitatea arautuko duen Estatutuen testua sartuko da dokumentuan.

Dokumentu horrek ondorengo datuak jaso beharko ditu, besteak beste: elkartearen izena, izen soziala eta kide sortzaileen datuak.

Izena

Elkarteen izenak ezingo du eduki bere nortasunari buruzko edo mota edo izaerari buruzko nahasmena eragiten duen termino edo adierazpenik, bereziki pertsona juridiko desberdinen hitz, kontzeptu edo sinbolo, akronimo edo antzekoak hartuz, haiek elkarte-jatorrikoak izan ala ez.

Ez dira onargarriak izango legez kontrako adierazpenak dituzten izenak, ez eta pertsonaren oinarrizko eskubideak zapaltzea eragiten dutenak ere.

Ezingo du bat etorri edo ezingo du nahasmena eragiten duen moduan antzekotasunik izan erregistratzea dagokion Erregistroan aurrez erregistratutako beste batekin, ez eta beste edozein pertsona juridiko publiko edo pribaturekin, ez eta lehendik dauden entitateekin, haiek naziotasun espainiarrekoak izan ala ez, ez eta pertsona fisikoekin ere, interesdunak edo bere oinordekoek espresuki adostasuna eman



gabe, ez eta marka erregistratu ospetsu batekin, titularrak berak eskatu ezean edo haren adostasunarekin eskatu ezean.

Kideak

Pertsona fisikoek eta juridikoek, publiko nahiz pribatuek, elkarteak eratu ahal izango dituzte eta haietako kide izan ahal izango dira, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoko 3. artikuluan adierazitako printzipioekin bat etorriz.

Pertsona fisikoek jarduteko gaitasuna eduki behar dute, eta ez dute inolako lege-baldintzapenen mende egon behar, eskubidea erabili ahal izateko.

Hamalau urtez beherako gazte emantzipatuek euren gaitasuna ordeztu behar duten pertsonen adostasuna eduki beharko dute, dokumentalki egiaztatuta.

Elkarte-izaerako Pertsona Juridikoek euren organoaren akordioa eduki behar dute, espresuki adierazia, eta erakunde-izaerakoek euren organo artezkariarena.

Eskaera

Pertsona eskatzailearen identifikazio-datuak dituen (izena, elkartean duen kargua edo jarduteko baldintza, NAN zenbakia, helbidea, telefono-zenbakia eta sinadura), entitatearen ordezkariak formulatuta, elkartearen identifikazioa (izena, helbidea, Interneteko domeinuaren edo helbidearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, halakorik eskuratu badu), gehitutako dokumentazioaren azalpena eta formulatzen den eskaera.

Estatutuak

Elkarte baten funtzionamenduaren oinarrizko arauak dira Estatutuak, eta arau juridikoaren izaerarik ez badaukate ere, lotesleak dira bazkideentzat, borondatez jartzen baitira arau horien menpe Elkartean sartzean.

Halaber, Eraketa Akta osatzen dute, eta Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoko 7. artikuluko eta Elkarteei buruzko otsailaren 12ko Legeko alderdi guztiak barne hartu beharko dituzte.

Estatutuek ondorengo puntuak izan beharko dituzte gutxienez:

- Denomino Elkartearen izena. Estatutu-helburuei edo Estatutuen helburu nagusiarri erreferentzia egin behar dio, eta inskribatutako beste batzuetatik edo etorkizunean inskriba litezkeenetatik bereizten duen izena izan behar du. Helburuen erreferentzia ahalik eta zehatzena izatea komeni da.
 - Helbide soziala. Helbide soziala leku publiko bat baldin bada, dagokionak egindako ziurtagiri bat erantsi beharko da, xede horretarako baimena ematen duena. Kide baten helbidea baldin bada, behin-behineko izaera gehituko zaio.
 - Elkartearen helburuak eta jarduera, zehaztasunez azalduta.
 - Nagusiki funtzioak garatzeko lurralde-eremua (EAEren barrukoa izan beharko du).
 - Elkartearen iraupena, behin betiko eratu ez bada.
- Gobernu- eta ordezkaritza-organoak, euren osaera, kideak hautatzeko eta ordezteko arauak eta prozedurak, kideen atribuzioak, karguen iraupena, bertan behera uzteko arrazoiak, deliberatzeko eta



erabakiak hartzeko eta exekutatzeko modua, erabakiak ziurtatzeko pertsona edo kargu eskudunak eta aipatutako organoak baliozkotasunez eratuta geratzeko eskakizunak, eta, orobat, gobernu-organoen saioen deialdiak egiteko edo gai-zerrendako gaiak proposatzeko beharrezko kide-kopurua.

- Onartzeko, baja emateko eta kideak bereizteko eskakizunak eta modalitateak, eta, egoki bada, kideen klaseak ere bai. Kideek kuotak ez ordaintzearen ondorioak ere sartu ahal izango dira.
- Administrazio, kontabilitate eta dokumentazioko erregimena, eta erakundearen ekitaldiaren itxiera-data.
- Zehatzeko erregimena.
- Kideen eskubideak eta betebeharrak, eta, egoki bada, euretako modalitate bakoitzari dagozkionak.
- Hasierako ondarea eta erabili ahal izango dituen baliabide ekonomikoak.
- Estatutuak aldatzeko prozedura.
- Desegiteko arrazoiak eta halako kasuetan ondareak izango lukeen helburua, kontuan izanik helburu horrek ezingo duela entitatearen irabazi-asmorik gabeko izaera hutsaldu.

Pertsona sustatzaileek egokitzen jotzen dituzten beste edozein bidezko xedapen edo baldintza ere barne hartu ahal izango dituzte Estatutuek, baldin eta ez badira legeen kontrakoak edo ez badute kontraesanik elkartearen konfigurazio-printzipioekin.

Zuzendaritza Batzordea

Elkartearen Zuzendaritza Batzordean karguak dituzten pertsonen datu pertsonalak biltzen dituen dokumentua.

Eusko Jaurlaritzaren elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzeko jarraitu beharreko urratsak.

Elkartea sortzeko beharrezko dokumentuak betetakoan, ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira elkarte gisa erregistratzeko:

- Eraketa-aktaren jatorrizko bi ale, bazkide sortzaileek sinatuta.
- Estatutuen jatorrizko bi ale. Orri guztiek Lehendakariak eta Idazkariak sinatuta egon behar dute.
- Lehendakariak sinatutako eskabidea, Elkarte inskribatzea eskatzen duena.
- Zuzendaritza Batzordearen dokumentuaren jatorrizko bi ale.
- Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsona guztien NANen fotokopia bat.

Gainera, dokumentazioa entregatzean, dagokion kuota ordaindu beharko da.

Hiru hilabete baino gehiagokoa ez den aldi bat igarotakoan, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistrotik inskripzioaren berri emango da, eta une horretatik aurrera ondorengoak jasotzera joan ahal izango da:

- Eusko Jaurlaritzak zigilatutako estatutuen kopia bat.
- Elkarteen Erregistroaren ziurtagiria.

Une horretan hiru akta-, kontu- eta kide-liburu eraman behar dira (inolako apunterik gabe), Eusko Jaurlaritzak zigila ditzan.



Identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzea. Foru Ogasuna

Behin elkarte erregistratutakoan, elkartearen identifikazio fiskaleko zenbakia eskatuko da. Horretarako, Samaniegoko kaleko Arabako Foru Aldundiaren Foru Ogasunera jo beharko da. Alderdi horri buruzko informazioa zerga-betebeharren inguruko kapituluaren aurkituko duzu.

Banku-kontua irekitzea

Aurreko guztiak konpondu ondoren, banku-kontu bat ireki daiteke elkartearen izenean. Horretarako, Identifikazio Fiskaleko txartela eraman behar da bankura.

Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzeko jarraitu beharreko urratsak

Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erregistroan erregistratutako elkarte oro Gasteizko Udalaren irabazi-asmorik gabeko elkarte Erregistroan ere inskriba daiteke, Espainia Plazan.

Aurkeztu beharreko agiriak hauek dira:

- Elkarte Eusko Jaurlaritzaren erregistroan inskribatu dela ziurtatzen duen agiriaren kopia.
- Eraketa-batzarraren aktaren kopia.
- Estatutuen kopia.
- Elkartearen Gobernu-organoen osaera.

- Elkartearen helbidea eta harremanetarako telefonoa.
- Gutxi gorabeherako kide-kopurua.

Sorrera berrikoa ez bada:

- Aurreko urteko aurrekontuaren likidazioa (ez dago inskripzio-unean entregatu beharrik; geroago entrega daiteke).
- Jarduera-memoria (ez dago inskripzio-unean entregatu beharrik; geroago entrega daiteke).
- Hasita dagoen urterako aurrekontua.
- Jarduera-plana.

Estatutuak aldatzea

Elkarteen 3/1988 Legeko 18. artikulua hau dio:

"Estatutu-aldarazpenak horretarako berriaz deituriko elkartuen Batzar Nagusian erabakiko dira, eta Erregistroan erregistratzen direnetik bakarrik ekarriko dituzte ondorioak gainontzekoen kaltetan, Lege honetako 8. artikuluan xedatuta dagoenarekin bat etorriz. Inskribatu gabekoak Lege honetako 11. artikulua xedatutakoaren arabera arautuko dira".

Ondorio horietarako, Ezohiko Batzar Orokorra deitu beharko da, aldaketa onesteko, Estatutuen arabera ezarritako quorumarekin.

Behin Batzarrak aldaketa hori onetsitakoan, Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan aurkeztu beharko dira agiri hauek, inskripzioaren ondorioetarako:



- Elkartearen Batzar Orokorraren bilera-akta edo haren ziurtagiria, Estatutuen arabera ziurtagiri hori egiteko eskumena duen pertsonak edo karguek egina; Estatutuak aldatzeko erabakia jaso beharko du, aldatutako artikuluen zerrenda, bertaratutakoen quoruma, bozketaren emaitza eta onspenaren data.
- Estatutu berrien testu osoaren bi ale, aldatutako artikulua dituztenak, elkarteko ordezkariak sinatuta, euren helburua idatziz jasota, Batzar Nagusian, edo, egoki bada, Estatutuetan ezarritako prozedurarekin bat etorritik, adostutako aldaketak sartuz erredaktatzeko beharrezko eginbidearen bidez; bi kasuetan, aldaketa erabakitako data idatziz jaso beharko da. Lurralde-eremua aldatu gabe helbide soziala soilik aldatzen duten Estatutu-aldaketei dagokienez ez da beharrezkoa izango Estatutuen testua gehitzea.
- Tasak: Elkarte baten estatutuak aldatzeko inskripzioari dagokion tasa 2,81 euro da, eta inskripzioa egindakoan ordaindu behar da.
- Eskaera, entitatearen ordezkariak formulatua, pertsona eskatzailearen identifikazio-datuak dituen (izena, elkartean duen kargua edo jarduteko baldintza, identifikazio fiskaleko zenbakia, helbidea, telefono-zenbakia eta sinadura), elkartearen identifikazioa (izena, helbidea, Interneteko domeinuaren edo helbidearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta Elkartearen Erregistro Nazionaleko inskripzio-zenbakia), gehitutako dokumentazioaren azalpena eta formulatzen den eskaera.

Eskaera, gainerako agiriekin batera, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Erregistrozuzendua beharko da, helbide honetara: Donostia-San Sebastian kalea 1, Vitoria Gasteiz. Gipuzkoa eta Bizkaiko ordezkarietan ere aurkeztu ahal izango da.

Boluntarioak eta Boluntariotzako Elkarrekin duten harremana

Urtarrilaren 15eko **Boluntariotzaren 6/1996 Legeak** estatu-mailan legeztatzen ditu (1996-01-17ko BOE, 15-1996 zk., Sekzioa: I).

Halaber, Euskadin **ekainaren 25eko Boluntariotzaren 17/1998 Legeak** arautzen ditu (argitalpena: 1998-07-13ko EHAA, 130 zk.)

Lege horren **xedea** da herritarrek irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetan boluntario-ekintzen bidez burututako partaidetza arautzea, sustatzea eta bultzatzea, gizarte-solidaritateko hainbat forma espontaneo barne hartu gabe.

Urtarrilaren 15eko Boluntariotzaren 6/1996 Legeko 2. artikuluan ezarritakoan ondorioz izan gabe, Lege horrek xedatutakoaren arabera arautuko dira euren jarduerak nagusiki Euskadin garatzen dituzten erakundeak edo egoitza edo ordezkariak Euskadin dutenak. Ondorio horietarako, erakundearen eraketa-dokumentuan xedatutakoa hartuko da aintzat.

Boluntariotza-jarduerak

Legeak boluntario-jardueratzat jotzen ditu pertsona fisikoek garatutako interes orokorreko jarduerak, ondorengo baldintzetan gauzatzen badira:

- a) Modu desinteresatuan eta elkartasunezko izaerarekin.
- b) Boluntarioki eta libreki, lan-, funtzionario- edo merkataritza-harremanaren arrazoirik eduki gabe, edo betebeharrak pertsonal baten edo betebeharrak juridiko baten arrazoirik ere ez.
- c) Irabazi-asmorik gabeko erakundeen bidez, eta programa edo proiektu zehatzen arabera.
- d) Ordainketa ekonomikorik gabe.
- e) Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ordeztu gabe.



Boluntariotza-kontzeptua

Boluntariotza-kontzeptuari dagokionez, Legeak ondorengo zehaztapenak egiten ditu:

- Boluntariotzat joko da libreaki konprometitzen dena Lege honek erreferentzia egindako jarduerak egitera, aurrez adierazitako baldintzetan.
- Boluntariotzak berarekin dakar pertsona baten -boluntarioaren- eta zerbitzuak emateko erakundearen arteko harremana. Harreman horrek eskubide batzuk eta elkarrekiko betebeharrak batzuk sortzen ditu, Legearen barne-estatutuak arautu behar dituenak, oinarri nagusietan behintzat.
- Boluntario-baldintza bateragarria izango erakundeko kide izatearekin. Erakunde batean profesional gisa jarduten duten pertsonak edo erakundearekin lan- edo merkataritza-harremanak edo ordaindutako nolanhikoak dituztenek ezingo dituzte funtzio berak garatu boluntario gisa, inolaz ere.

Araudiak, halaber, erreferentzia egiten die pertsona boluntarioen eskubideei eta betebeharrari.

Boluntarioen eskubideak

Legeak adierazitako boluntarioen eskubideak zerrendatzen dira jarraian:

1. Integritateko erakundearen aktiboki parte hartzea, erakunde horri buruzko beharrezko informazioa jasota, eta bereziki helburuei, antolamendu-egiturari eta funtzionamenduari buruzkoa, eta, orobat, erakundearen baitan eratzen diren partaidetza-organoak eratzea eta haietako kide izatea.
2. Esku hartzeko programa edo proiektuen diseinu, prestaketa, exekuzio eta ebaluazioan laguntzea, eta boluntario gisa eragiten dioten erakundeko alderdiei buruz iritzia emateko aukera edukitzea.



3. Boluntario gisa burutzen duen zereginak eskatzen duen laguntza teknikoa, giza laguntza eta prestakuntza jasotzea, eta horretarako baldintza onenak dituen jarduerari buruzko orientazioa eskuratzea.
4. Boluntario gisa bere jarduera burutuz hirugarrenei eragindako kalte-galerengatik aseguru baten estaldura jasotzea, araudiaren arabera ezarritako ezaugarrieekin eta kapitalekin.
5. Bere jarduera burutzean egindako gastuengatik konpentsazio ekonomikoa jasotzea, betiere hala adostu bada boluntarioaren eta erakundearen artean adostutako baldintzetan, akordio horretan aurreikusitako muga baita.
6. Egindako programek edo proiektuek horretarako bide ematen duten neurrian, ingururik hurbilenean jarduerak garatzea.
7. Diskriminaziozkoa ez den tratua eta justua jasotzea, bere askatasuna, duintasuna, intimitatea eta sinismenak errespetatuz.
8. Segurtasun eta higieneko baldintza egokietan burutzea jarduera, jarduera horren izaeraren eta ezaugarrien arabera.
9. Egiten duen gizarte-ekarpenagatik errespetua eta errekonozimendua jasotzea.
10. Libreki etetea boluntario-baldintza, aurrez horren berri emanda.
11. Lege honetatik eta boluntariotzari erreferentzia egiten dion gainerako ordenamendu juridikotik eratorzen diren gainerakoak.





Boluntarioen betebeharrak

Boluntarioen betebeharrak dira:

- Aukeren eta borondatearen arabera, aktiboki laguntzea integratutako erakundeari, erakunde horretan parte hartuz eta lagunduz.
- Erakundearekin hartutako konpromisoak betetzea, helburuak eta erakundea arautzen duen araudia errespetatuz.
- Esleitutako zereginak betetzeko arduraz jokatzeta, eta erakundearen arduradunek emandako jarraibideak jarraitzea.
- Erakundeak aurreikusitako prestakuntza-jardueretan eta ematen diren zerbitzuen kalitatea mantentzeko beharrezkoak diren jardueretan parte hartzea.
- Boluntario-jarduera garatzean jasotako eta ezagututako informazioaren isilpekotasuna gordetzea.
- Jarduera zuzentzen zaien pertsonen edo pertsona-taldearen eskubideak errespetatzea.
- Modu egokian erabiltzea boluntario-akreditazioa eta erakundearen bereizgarria.
- Bere eskura jartzen diren baliabide materialak zaintzea.
- Oro har, Lege honetako 4. artikuluan adierazitako printzipioen arabera egitea ekintza boluntarioa.
- Lege honetatik eta boluntariotzari erreferentzia egiten dion gainerako ordenamendu juridikotik eratortzen diren gainerakoak.
- Hartzen diren segurtasuneko eta higieneko neurriak betetzea.



Boluntariotzako Erakundeek boluntarioekin duten harremana

Legearen II. kapituluak erreferentzia egiten die boluntariotzako erakundeei eta Legearekiko duten inplikazioari, ondoren aipatzen den bezala:

1.- Boluntarioak dituzten erakundeak, duten forma juridikoa dutela ere, legalki eratuta egon beharko dira, nortasun juridiko propioa eduki beharko dute, irabazi-asmorik ez izan, behar bezala erregistratuta egon beharko dira dagozkien Euskal Autonomia Erkidegoan eskumena duten fundazioen eta elkarten erregistroetan, eta programak edo proiektuak garatu beharko dituzte legeko 3. artikuluan definitutako interes orokorreko jardueren markoan.


2.- Boluntariotzako erakundetzat joko dira, hain zuzen ere, aurreko baldintzak betetzeaz gain nagusiki boluntarioez osatutakoak diren erakundeak eta boluntario horien bidez burutzen dituztenak euren ekintza-programa edo -proiektu gehienak.

3.- Boluntarioak erakundeetan sartzea idatziz formalizatuko da, dagokion akordio edo konpromisoarekin; akordio edo jarduera horrek, harremanaren izaera altruista zehazteaz gainera, edukitzat izango ditu alderdien elkarrekiko eskubideak eta betebeharrak, eta funtzioak, jarduerak, harremanaren iraupena, ebazpen-arrazoiak eta bi alderdiek zehazten duten guztia, legearen bermeak babesteko.

Elkarten betebeharrak

Elkarteek ondorengoak bete beharko dituzte edozein kasutan:

a) Erakundeko pertsona boluntarioen barne-estatutua egitea, gutxienez pertsona hauek onartzeko eta baztertzeko irizpideak, euren eskubideak eta betebeharrak zehazten dituenak.



- b) Boluntarioen informazioa, partaidetza eta lankidetzak bermatzeko beharrezko mekanismoak artikulatzea, bai erakundearen baitan, bai integratutako proiektuetan edo programetan.
- c) Boluntarioei euren funtzioak betetzeko laguntza eta bitarteko egokiak ematea.
- d) Boluntarioei euren jarduerak behar bezala egiteko beharrezko prestakuntza ematea.
- e) Boluntarioei euren jarduerak burutzean eragin ditzaketen kalte-galeren estaldura bermatzen dien aseguru-poliza harpidetzea, arauen arabera ezarritako ezaugarriekin eta kapitalekin.
- f) Segurtasun eta higieneko baldintza egokiak bermatzea, ekintza boluntarioa bideratzeko burutzen den jarduerak horren izaeraren eta ezaugarrien arabera.
- g) Emandako zerbitzuak egiaztatzen dituen ziurtagiria ematea pertsona boluntarioari.
- h) Erakundearen sartzeko akordioan boluntarioekin hartutako konpromisoak betetzea.
- i) Boluntarioen alteen eta bajeen erregistro bat kudeatzea.
- j) Jarduera boluntarioetatik sortutako gastuen ordainketa egitea, hala aurreikusita dagoenean boluntarioaren eta erakundearen artean hitzartutako baldintzetan, akordio horretan aurreikusitako muga baitan.
- k) Jarduera garatzeko gaitzen eta identifikatzen duen akreditazioa ematea boluntarioari.

Elkarteen eskubideak

Elkarteen eskubideak dira ondorengoak:

- a) Boluntarioak hautatzea, egin beharreko zereginen arabera.
- b) Boluntariotzako jarduerarekin lotura duen informazioa eta orientazioa eskatzea Administrazioari, eta informazio eta orientazio hori eskuratzea.
- c) Jarduera boluntarioa sutatzeko ekintzetan aurreikusitako neurriekin bat egitea.



Administrazioaren eta boluntarioak dituzten erakundeen arteko harremanak

Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra

Eusko Jaurlaritzak, gizarte-ongizate gaietako eskumenak esleituta dituen Sailaren bidez, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra kudeatzen eta antolatzen du.

Hasierako helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan dauden Boluntariotzako Erakundeen kopurua eta osaera ezagutzera ematea da, gero Boluntariotzako Euskal Kontseilua sortzeko eta garatzeko, eta Eusko Jaurlaritzak gai horren inguruan dituen gainerako eskumenak gauzatzeko:

- Boluntarioen baliabideen katalogo publiko bat egitea
- Boluntariotzari buruzko dokumentazio-funts bat eta datu-base bat sortzea, lehenik dauden foroak koordinatuko dituztenak

Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean inskribatuko dira, boluntariotzako erakundeez gain, nagusiki boluntarioez osatuta daudenak eta euren programa edo ekintza-proiektu gehienak boluntario horien bidez garatzen dituztenak eta, boluntario-erakundetzat jotzen ez diren arren boluntarioek parte hartutako programak dauzkatenak euren jardueren artean. Erakunde horiek behar bezala erregistratuta egongo dira dagozkien EAEko eskumenekoak diren elkarteen, fundazioen edo kirol-erakundeen erregistroetan, edo, egoki bada, eraketagatik eta egoitza edo helbide sozialagatik, antzeko erregistroetan inskribatuta egongo dira.



Boluntarioak eta Boluntariotzako Elkartekin duten harremana

Inskriba daitezkeen erakundeek kasu guztietan, euren forma juridikoa edozein dela ere, ondorengo eskakizunak bete beharko dituzte:

1. Legez eraturata egotea.
2. Nortasun juridiko propioa edukitzea.
3. Irabazteko asmorik ez edukitzea.
4. Boluntariotzaren ekainaren 25eko 17/1998 Legeko 3. artikuluan definitutako interes orokorreko jardueren markoan programak edo proiektuak garatzea.
5. Behar bezala erregistratuta egotea dagozkien EAEko eskumenekoak diren elkarten, fundazioen edo kirol-erakundeen erregistroetan, edo, egoki bada, eraketagatik eta egoitza edo helbide sozialagatik, antzeko erregistroetan inskribatuta.

Edukia eta beharrezko dokumentazioa

Edukia:

- Erakundearen izena.
- IFZ.
- Izaera juridikoari dagokion erregistroko inskripzio-zenbakia.
- Helbide soziala, egoitza edo ordezkaritza Euskadin izatea.
- Erakundearen helburuak eta burutzen dituen interes orokorreko jarduerak.
- Jarduketa-eremua.
- Helburuko herritarren ezaugarriak.
- Jarduera-eremua.
- Ordezkari legala edo boluntarioen pertsona arduraduna.
- Erakundeko giza baliabideak.
- Elkarten kasuan, erabilera publikoaren adierazpena, halakorik egonez gero Boluntarioek garatutako programak eta jarduerak.



Beharrezko dokumentazioa:

- Dagokion Erregistroak egindako ziurtagiria, entitatearen izaera juridikoaren arabera, fede emanez jasotzen duena inskripzioa.
- Erakundeko Boluntariotzaren Barne Estatutuaren kopia, hala badagokio, gutxienez pertsona horiek onartzeko eta baztertzeko irizpideak eta euren eskubideak eta betebeharrak zehazten dituenak.
- Aseguru-polizaren kopia, 8. artikuluko 4. idatz-zatiko e) letran xedatutakoarekin bat etorritik euren jarduera burutzean hirugarrenei eragin liezazkiekeen kalte-galeren estaldura bermatzen diena boluntarioei, eta kopia horrekin batera, orobat, abian den urtean indarrean dagoen aseguruaren prima ordaindu dela egiaztatzen duen jatorrizko frogagiriaren kopia, eta polizan aseguraturakoen zerrenda. Horretarako harpidetutako erantzukizun zibileko polizak gutxienez 300.506,05 euroko (50 milioi pezetako) kapital aseguraturua izango du.
- Erakundeari dagozkion behar bezala legeztatutako eraketa-estatutuen kopia.
- Irailaren 1eko 169/2000 Dekretuko 1. eranskin gisa gehitutako inskripzioko eredu normalizatua.

Aseguru-poliza

Boluntariotzaren 17/1998 Legeak, 6. artikuluan, boluntarioen eskubideak jasotzen dituenean, xedatzen du boluntarioaren eskubide bat dela aseguru baten estaldura izatea boluntario gisa burutzen duen jardueraren ondorioz hirugarrenei eragin liezazkiekeen kalte-galereengatik, eta arauak ezarritako ezaugarriekin eta kapitalekin.

Halaber, 8. artikuluan ezartzen da erakundeek euren boluntarioei poliza horiek harpidetzeko daukaten betebeharra.

Poliza horrek boluntarioei bermatu egin behar die ekintza boluntarioak irauten duen bitartean izandako istripuen ondoriozko osasun-laguntzagatiko, heriotzagatiko eta baliaezintasunagatiko estaldura, eta hirugarrenei eragin liezazkiekeen kalte-galerei dagokiena ere bai.

Horretarako harpidetutako erantzukizun zibileko polizak gutxienez 300.506,05 euroko (50 milioi pezetako) kapital aseguraturua izango du.

Inskripzioaren ondorio juridikoak

Boluntariotzako Erakundeek hautazko izaerarekin egingo duten inskripzioak bide emango die erakunde horiei Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan egoteko, elkartzeko eta parte hartzeko organoan, alegia; halaber, Administrazio Publikoek euren eskumenen eremuan egiten dituzten sustapen-neurriak eta diruz lagundutako programak baliatu ahal izango dituzte horrela.

Boluntariotzaren Euskal Kontseilua

2002an Boluntariotzaren Euskal Kontseilua sortu zen, boluntariotzako gaien inguruan elkartzeko, aholkatzeko eta kontsultak egiteko organo gisa, gizartea eta erakunde sozialak elkartasunezko politiken partaide egiteko. Kontseilu hori gizarte-ongizate gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailari atxikia dago.

Funtzioak

Hona hemen Boluntariotzako Euskal Kontseiluaren funtzioak:

- Zuzenean boluntariotzari eragiten dioten izaera orokorreko arau-xedapenen aurreproiektuei eta proiektuei buruz informatzea derrigorrez. Txosten hori eskatu eta handik hamabost eguneko epearen barruan egingo da.
- Boluntarioen oinarrizko beharrak detektatzea eta aztertzea.
- Ekintza boluntarioa garatzeko hainbat eremurekin harremana duten proposamenak eta ekimenak aholkatzea eta helaraztea Euskal Administrazio Publikoei, eta boluntariotzako programak diruz laguntzeko jardueran lehenesteko irizpideak proposatzea.
- Boluntariotza sustatzeko neurriei buruzko proposamenak aztertzea eta zuzentzea Euskal Administrazio Publikoei.
- Euskal Administrazio Publikoek boluntariotzako programei buruz egiten duten jarraipenari eta ebaluazioari buruz eta ematen diren diru-laguntzei buruz informatua izatea.

Boluntarioak eta Boluntariotzako Elkarteekin duten harremana



- Urtero txosten bat egitea Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoerari buruzkoa.
- Gizarte-eragileen presentzia sustatzea solidaritatearen inguruan dauden partaidetza-organoetan.

Osaera

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak kide hauek izango ditu:

- **Lehendakaria:** Harengan delegatutako Kontseilua edo pertsona atxikitako Saileko sailburua.
- **Batzordeburuordea:** boluntariotzako erakundeen ordezkarien artean hautatua izaten dena. Araudiaren arabera zehazten diren lehendakaritzako funtzioak delegatuko zaizkio.
- **Kideak:**
 - Eusko Jaurlaritzako sei ordezkari, Sailburuorde-mailakoak, gizarte-ongizatean, ingurumenean, babes zibilean, kanpo-ekintzan, kulturean, hezkuntzan, kirolean eta osasunean eskumena duten Sailek izendatuta.
 - Foru Aldundietako hiru ordezkari, Aldundi bakoitzak izendatuak.
 - Udalerrietako hiru ordezkari, ordezkari handiena duen Euskal Udalerrien Elkarteak izendatuta.
 - Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean inskribatutako erakundeen artean hamahiru ordezkari hautatzea, erakunde txikienen presentzia ahalbidetzen duen partaidetza-sistema baten bidez. Ordezkar horien guztien edo euretako batzuen izendapena falta bada, kontseilu honen lehendakaritzak izendatuko ditu.
- **Idazkaria:** lehendakaritzak izendatutakoa, Kontseiluko kideen artean.

Kontseiluko kideek, euren ordezkagarritasunaren arabera hautatuta, hiru urteko agintaldia izango dute, behin bakarrik berriro daitekeena, eta agintaldia amaitu baino lehen eten ahal izango du izendatu zuenak.

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan bertaratu ahal izango dira, informazioko edo aholkularitzako ondorioetarako soil-soilik, aztertzen den gaiaren inguruko adituak.

Boluntariotzaren Euskal Plana

Gobernu Kontseiluak, 2003ko apirilaren 15ean egindako bileran, Boluntariotzaren Lehen Euskal Plana onetsi zuen, aho batez, Boluntarioen Euskal Kontseiluaren baitan, Eusko Jaurlaritzak, Eudelek, Foru Aldundiek eta Boluntariotzako Erakundeek osatuta.

Proiektu honen helburu nagusia hau da: Boluntariotza sustatzeko neurriak garatzea eta exekutatzeko, 1998ko ekainaren 25eko Boluntariotzako Legean aurreikusitakoak, hain zuzen ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren agertokian dauden agente edo instantzia guztien estrategiak eta jarduketak bultzatzea eta lerrotzea da Boluntariotzaren Euskal Planaren bokazioa. Hori ez da eragozpen Eusko Jaurlaritzak, zeina Plana onetsi duena baita, instantzia edo eragile publiko nahiz pribatu horietako bakoitzaren autonomia errespetatzeko eta bultzatzeko, hemen proposatzen diren orientazioak onartzeko eta aplikatzeko garaian.

Planak adostasun-mailarik handiena eta sinergiarik interesgarrienak aktibatu nahi ditu Eusko Jaurlaritzako sailen, Foru Aldundien, Udalen, boluntario-erakundeen eta bestelako gizarte-eragile eta -instantzien planen eta ekintzen artean. Horretarako oinarri garrantzitsua da plana prestatzeko prozesua; izan ere, instantzia horiek guztiek parte hartu dute, eta konprometitu egin dira.

Boluntariotzaren Euskal Plana hiru urteko eperako egin da, a priori. "Ekimen aitzindaria" da Euskadin, izaera "estrategiko eta irekikoa", Boluntariotzaren errealitatea aldatzeko eta hobetzeko prozesuan ahaleginak eta borondateak batu nahi dituena. Horretarako, ezinbestekoa da interes orokorreko jarduerak bultzatzea, "pertsone fisikoek modu desinteresatuan eta solidarioan" burutzen dituztenak Autonomia Erkidegoan.

Plan hori web orri honetan kontsulta dezakezu: www.gizarte.net

Legeria

Oinarrizko araudi erregulatzalea

- Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa (BOE, 73. zk., martxoaren 26koa).
- 3/1988 Legea, otsailaren 12koa, Elkarteei buruzkoa (EHAA. 42. zk, martxoaren 1ekoa).
- Espainiako Konstituzioa (22. artikulua), 1978ko abenduaren 27koa (BOE, 311.1 zk., abenduaren 29koa).
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, NBEaren 183. Batzar Nagusiak onetsia eta aldarrikatua 1948ko abenduaren 10ean (20. eta 21. artikulua).
- Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena, Erroman egindakoa 1950eko azaroaren 4an (11. artikulua).1979ko irailaren 26ko Berrespen Agiria (BOE, 243. zk., 1979ko urriaren 10ekoa).
- Giza eta Politika Eskubideen gaineko Nazioarteko Ituna, 1966ko abenduaren 19koa (22. artikulua). 1977ko apirilaren 13ko Berrespen Agiria (BOE, 103. zk., 1977ko apirilaren 30ekoa).
- Europar Batasunaren Ebazpena, 1987ko martxoaren 13koa, irabazi-asmorik gabeko elkarteei buruzkoa (Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, C 99/205 zk., 1987ko apirilaren 13koa).
- Europar Hitzarmen Markoa, Erkidego edo Lurralde Autoritateen arteko mugaz haraindiko lankidetzari buruzkoa, Madrilen egina 1980ko maiatzaren 21ean. 1990eko uztailaren 10eko Berrespen Agiria (BOE, 248 zk., 1990eko urriaren 16koa).
- Zigor Kodea (510.etik 521.era bitarteko artikulua).
- Kode Zibila (28, 35-39 eta 41. artikulua).
- 49/2002 Legea, abenduaren 23koa, irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-erregimenari eta mezenasgoagatiko zerga-pizgarriei buruzkoa (BOE, 307 zk., 2002ko abenduaren 24koa).

- Autonomia Estatutua (10.13 artikulua). 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa (BOE, 306. zk, abenduaren 22koa).
- 2590/1985 Errege Dekretua, abenduaren 18koa (BOE, 11. zk., 1986ko urtarrilaren 13koa).
- 77/1986 Dekretua, martxoaren 25ekoa, Elkartearen Erregistro Orokorra sortzen duena (EHAA, 68. zk., apirilaren 9koa).
- 397/1988 Errege Dekretua, apirilaren 22koa, Gazte Elkartearen erregistro-inskripzioa arautzen duena (BOE, 102. zk., apirilaren 28koa).
- 1497/2003 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Elkartearen Erregistro Nazionala eta gainerako elkarte-erregistroekiko harremanak onesten dituena (BOE 306. zk., abenduaren 23koa).
- 1740/2003 Errege Dekretua, abenduaren 19koa, erabilera publikoko elkarteei dagozkien prozedurei buruzkoa (BOE, 11. zk., 2004ko urtarrilaren 13koa).

Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak ezartzen dituen aldaketak

Konstituzioaren 22.artikuluaren garapenari Lege Organiko bidez heltzea, funtsezko eskubidea baita, eta, beraz, bultzatu egiten du 1/2002 Lege Organikoa egitea, elkartzeko eskubidea arautzen duena, eta Legeko artikuluetan zehar agerian jartzen duena Estatuak zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratikoaren osaera duela.

Aipatutako 1/2002 Lege Organikoak hainbat berrikuntza ezartzen ditu elkartzeko eskubideari dagokionez, zeina Legeko azken xedapenetatik lehenengoan xedatutakoaren arabera osatuta baitago, Lege Organikoaren mailako artikuluekin, Estatu osoan zuzenean aplikatzeko artikuluekin, Estatuak soilik arautzeko gaietako artikuluekin eta Estatu-eremuko elkarteei aplikagarri zaizkienekin.

1/2002 Lege Organikoak, elkartzeko eskubideari dagokion aurreko araudiaren funtsa aldatzen ez duenak, ondorengo berrikuntzak ezartzen ditu aurreko legegintzari dagokionez, hainbat artikuluren erredakzioaren

ingurukoak, lehendik aplikatzen ari ziren zenbait kontzeptu orokor espresuki araupetzeko, zeinak elkartzeko eskubideari buruzko arauditik eratorzen baitziren:

2.5 artikulua:

Elkarteen barne-antolamendua eta funtzionamendua demokratikoak izan behar dira, pluraltasuna erabat errespetatuz. Elkartzeko funtsezko eskubidearen edozein alderdi ezagutzen ez duten hitzarmenak, estatutu-xedapenak eta akordioak erabat deusezak izango dira.

2.6 artikulua:

Entitate publikoek elkarren artean, edo beste partikular batzuekin, elkartzeko eskubidea erabili ahal izango dute, sustapeneko eta laguntzako neurri gisa, betiere haiekin baldintza berdinetan eginez gero, menderatze-jarrerak ekiditeko elkartearen funtzionamenduan.

3-g) artikulua:

Pertsona juridiko-publikoek elkarteak eratu ahal izango dituzte, euren eraketa-arau erregulatzailiek kontraktorik zehaztu ezean.

7-c):

Elkartea behin betiko eratzen ez denean, Estatutuetan adierazi egin behar da elkarte horrek duen iraupena.

7-g) artikulua:

Elkarteen funtzionamendu demokratikoa bermatzen duten irizpideak adierazi egin behar dira. Nolanahi ere, Estatutuen erredakziotik zalantzarik gabe deduzitzen bada elkartearen izaera demokratikoa (Zuzendaritza Batzordeko kideak hautatzeko sistema, Batzar Nagusiaren bilkurak eta osaera, bazkideen onespena etab.) nahikoa dela onar liteke.

7-i):

Elkarteen Estatutuek halabeharrez eduki beharreko beste alderdi bat administrazioko, kontabilitateko eta dokumentazioko araubidea da, eta elkartearen ekitaldiaren itxiera-data ere bai.

7-k):

Idatz-zati horretan espresuki ezartzen da, Elkarte deseginez gero ondarearen helburuak ezingo duela desbideratu erakundearen irabazi-asmorik gabeko izaera.

Horrela, beraz, ez da nahikoa gerakina antzeko helburuak dituen erakunde batera bideratzea, eta espresuki adierazi behar da likidaziotik eratorritako ondarea irabazi-asmorik gabeko entitate batera bideratuko dela.

12. artikulua:

Artikulu honek c) eta d) puntuetan aldatu egiten du Batzar Nagusiaren deialdien eta erabaki-hartzeen erregimena.

Azken xedapenetako lehenengoan xedatutakoaren arabera, ez du oinarrizko izaerarik, eta, beraz ez da Autonomia Erkidegoek zuzenean eta derrigorrez bete beharrekoa. Halaber, 12. artikuluko lehen paragrafoan xedatutakoaren arabera, elkarteen Estatutuek barne-erregimen desberdina ezarri ahal izango dute.

Dena den, Elkarteek jarraitu beharreko eredu bat izan daiteke, barne-erregimena arautzeko, erregimen desberdin bat aurreikusita ez dagoen kasuetarako.

8. artikulua:

Izendapenari dagokionez, 1/2002 Lege Organikoak espresuki ezartzen du Pertsona Juridiko desberdinen berezko izendapenak erabiltzeko debekua, elkarte-jatorrikoak izan ala ez: Sozietate, Kooperatiba, Fundazio, etab.

Bestalde, ez dira onargarriak izango legez kontrako adierazpenak dituzten izenak, ez eta pertsonaren oinarritzko eskubideak zapaltzea eragiten dutenak ere.

3. paragrafoak zabaldu egiten du inskribatzea dagokien Erregistroan inskribatutako beste elkarte batzuen izenarekin bat etortzeko debekua beste edozein pertsona juridiko publiko nahiz pribatutara, nahiz eta azken alderdi hori betetzea oso zaila edo ezinezkoa izan pertsona publiko edo pribatu guztien izenei buruzko informazio-faltaren ondorioz.

11-5 artikulua:

Aldaketarik esanguratsuenetakoa da, besteak beste, organoetako kideek euren karguaren arabera ordainketak jasotzeko aukera, eta hori Estatutuetan eta batzarrak urtero onetsitako kontuetan jaso beharko da.

13-2 artikulua:

Espresuki arautzen da elkarteek lortutako mozkinak ezingo direla kideen artean banatu, 13-2 artikulua tenore literarioa ondokoa izanik:

“Elkarteek lortutako mozkinak, jarduera ekonomikoak buruzetik eratorritakoak, zerbitzu-emateak barne, eskusiboki bideratu beharko dira elkartearen helburuak betetzera, eta inolaz ere ezingo dira kideen artean banatu, ez eta euren ezkontideen edo antzeko afektibitate-harremanarekin eurekin bizi diren pertsonen artean, eta euren ahaideen artean ere ez, eta, gainera, mozkinak ezingo zaizkie doan laga irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoei”.

15-1 eta 2:

Erregistroan inskribatzeak ez dauka eraketa-izaerarik; publizitate-ondorioetarako soilik egiten da. Nolanahi ere, erregistroan inskribatzeko unea erabakigarria izaten da ondare-erantzukizunari dagokionez.

Inskribatzeko unean aldatu egiten da Elkaratearen ondare-erantzukizuna; handik aurrera elkartea bere betebeharren erantzule da bere uneko eta etorkizuneko ondare guztiekin, eta une horretatik aurrera kideek ez dute pertsonalki erantzun behar Elkaratearen zorrengatik.

15-3, 4 eta 5:

15. artikuluko 3., 4. eta 5. paragrafoek gobernu-organoetako eta ordezkari-tza-organoetako kideen edo titularren eta elkarteen izenean edo ordezkari-tzan jokatzeko gainerako pertsonen erantzukizuna arautzen dute.

Gobernu-organoetako eta ordezkari-tza-organoetako kideek edo titularrek eta elkarteen izenean edo ordezkari-tzan jokatzeko gainerako pertsonak Elkaratearen onerako jarduteko betebeharra daukate, eta hau da euren erantzukizun-erregimena:

- Elkaratearen, kideen eta hirugarrenen aurrean erantzun behar dute dolu, erru edo zabarkeriazko ekintzen ondorioz egindako kalteei eta zorrei dagokienez.
- Euren funtzioak betetzean egindako ekintzengatik eta ez-egiteengatik eta bozkatutako erabakiengatik erantzukizun zibila eta administratiboa izango dute hirugarrenen, elkaratearen eta kideen aurrean.
- Gobernu-organoetako eta ordezkari-tza-organoetako ezein kideri edo titularri ezin zaionean egotzi erantzukizuna, guztiek solidarioki erantzungo dute aurreko bi paragrafoek erreferentzia egindako ekintzengatik eta ez-egiteengatik, baldin eta ezin badute frogatu beraiek ez dutela parte hartu ekintza eta ez-egite horien onespenean eta exekuzioan edo espresuki aurka egin zutela.

15-6 artikulua:

Zigor-erantzukizuna zigor-legeetan ezarritakoaren arabera eraenduko da.

25-1-b) artikulua:

Modu egonkorrean edo denbora luzez Espainian jarduerak burutzen dituzten Elkarate atzerriarrak Elkarteen

Erregistro Nazionalen inskribatuko dira, Madrilen, eta lurralde-ordezkaritza bat ezarri beharko dute Espainiako lurraldean.

Atzerriko elkartearen jarduera-eremua nagusiki Autonomia Erkidego batekoa edo hainbatetakoa denean, Erregistro Nazionalak inskripzioaren berri emango die erreferentzia egindako Autonomia Erkidegoei.

28-1 artikulua:

Elkarteen inskripzioak, besteak beste, maiatzaren 20ko 1.440/1965 Errege Dekretuak, 1964ko abenduaren 24ko Elkartearen Legeko arau gehigarriak ezartzekoak, 7. artikulua ezarritakoez gain, ondorengo oinarriak eta euren aldaketak ezartzen ditu, hauei buruzkoak:

- Gobernu-organoetako eta ordezkari-organotako titularren nortasuna (Euskadiko Elkartearen Erregistro Orokorrean ohikoa izaten da).
- Federazioak, konfederazioak eta batasunak eratzen edo osatzen dituzten elkarteak.
- Beste elkarte, federazio, konfederazio eta batasun edo nazioarteko entitate batzuetako kideak.
- Elkartearen baja (adibidez, beste Autonomia Erkidego bateko Elkarte Erregistro batera traslodoa egindakoa, elkarteak bere jarduerak nagusiki garatzen ditueneko lurralde-eremua aldatu izanagatik) edo etetea.

30. artikulua:

Dagokion Erregistroan inskribatzeko epea hiru hilabetekoa izango da edozein kasutan, organo eskumendunak eskaera hartzen duen egunetik kontatzen hasita.

Aurreko paragrafoan adierazitako inskripzio-epea iragandakoan ebazpen adierazirik jakinarazi gabe, inskripzio-eskaera estimatu dela ulertu ahal izango da.

Aurrez adierazitakoari jarraiki, aipatzekoa da inskripzio-epea hiru hilabetera luzatzen dela, Lege Organikoak

espresuki adierazten baitu isiltasunaren izaera positiboa, epe hori iragandakoan Administrazio Publikoak erantzunik eman gabeko kasuetarako (Administrazio Publikoak akatsak zuzentzeko idazkiaren jakinarazpena egiteak eten egiten du adierazitako epea, eskatzaileak erantzun arte).

Erregistroko inskripzioa beti alderdiak eskatuta egingo da, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 70. artikuluan adierazitako alderdiak barne hartu behar ditu eskaera-idazkiak.

Aipatutako 30/1992 Legeko 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, hasierako eskaerak ez baditu betetzen artikuluko horrek adierazten dituen eskakizunak eta, egoki bada, berariazko legegintzak aplikagarriak exijitutakoak (kasu honetan 1/2002 Lege Organikoak eta otsailaren 12ko 3/1988 Legeak, Elkarteei buruzkoak), interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean zuzen dezala hutsegitea edo beharrezko dokumentuak aurkez ditzala adierazita bere eskaerari uko egingo zaiola hori egin ezean (eta ondorioz eskaera iraungita geratuko da), aurrez 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan gauzatutako ebazpena eginda.

Eskatutako agiriak aurkezteko zailtasun berezirik baldin badago, interesdunak eskaturik edo organoaren ekimenez beste bost egun eman daitezke, hautaketa-prozesu edo norgehiagoka-prozeduretan izan ezik (normalean akatsak zuzentzeko epea hamabost egunekoa izaten da).

32-1-c artikulua:

Erabilera publikoko adierazpena eskatzen duten elkarreetako edo adierazpen hori esleituta daukaten elkarreetako gobernu-organotako kideek ordainketak jaso ahal izango dituzte euren karguen arabera, baldin eta ez badituzte egiten funts eta diru-laguntza publikoen kargura.

33. artikulua:

Bi puntu gehitzen dira erabilera publikoko elkarteen eskubideei erreferentzia egiten dien artikuluan:

Erabilera publikoko elkarte deklaratuak elkarteek ondorengo eskubideak izango dituzte:

- Legeek elkarte alde ezartzen dituzten onura ekonomikoak jasotzea.
- Doako laguntza juridikoa, berariazko legegintzan aurreikusitako baldintzetan.

34. artikulua:

Erabilera publikoko elkarte urteko kontuek adierazi beharreko puntuak zehazten dira, aipamenik egin gabe hurrengo urterako diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu baten aurkezpenari.

Laugarren xedapen gehigarria:

Legezko edozein helburu zehatzetarako dirua biltzeko xedea duten eske eta harpidetza publikoak, ongintzako ekitaldiak eta aldi baterako bestelako antzeko ekimenak sustatzen dituztenek pertsonalki eta solidarioki erantzuten dute bildutako zenbatekoen administrazioan eta inbertsioan lagundu duten pertsonen aurrean.

** Orain Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak Euskadiko Elkartearen Legearen aurreproiektu bat egin du; aurreproiektu horrek, Gobernuaren baitan eta ondoren Legebiltzarrean izapidetu ondoren, egun indarrean dagoen Elkartearen Legea ordeztuko du, hau da, otsailaren 12ko 3/1988 Legea.



Elkarteen betebeharrak fiskalak

Ordenamendu Juridikoak ezarritako Zerga Administrazioarekiko betebeharrak bete behar dituzte elkarteek. Betebeharrak horiek eragina dute zergen ordainketan eta informazio-horniduran.

Identifikazio Fiskaleko Zenbakia

Arabako Foru Aldundiak emandako **Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren** eskaera, 006 ereduaren bidez. Eredu horrekin batera, Eusko Jaurlaritzan entregatutako dokumentazio guztiaren jatorrizkoa eta kopia bat aurkeztu behar da, eta, gainera, kide sortzaile izateaz gain eskaera sinatu duen pertsona baten NANaren fotokopia.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga Lizentziaren alta

Zerga hau (uztailaren 19ko 43/1989 Foru Araua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarena) elkartearen jarduera ekonomikoen ekitaldiari aplikatuko zaio. Zerga hori beharrezkoa da zergadunak bere ekoizbideak eta giza baliabideak, edo horietarik bat, bere kasa antolatzea eragiten duten jarduera ekonomikoak



gauzatzeko, ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan aritzea duela helburutzat. Adibide zehatz batzuk: ondasun bat errentatzea edo saltzea, edo zerbitzu bat ematea. Hori gertatzen denean, alta izapidetu beharko dugu.

Garrantzitsua da jardueraren bolumena eta iraupena neurtzea, teorikoki altan eman behar baita garatzen diren jardueretako bakoitzari dagokionez, eta kuota kalkulatzeko gutxieneko epea jardueraren altaren eta bajaren artean iragandako denboraren arabera izaten da. Bien artean iragandako denbora urtebete baino gutxiago bada, altaren datatik urte horretako abenduaren 31 arte kalkulaten da kuota, eta urtebete baino gehiago bada, orduan urte horretako urtarrilaren 1etik hasi eta jarduera bajan ematen den data arte.

Zerga horrek lehen nolabaiteko eragin ekonomikoa izan zezakeen; gaur egun, ordea, ez du ia inolako eraginik, zergatik salbuetsizat jotzen baitira bi milioi euro gainditzen ez dituen eragiketa-bolumena daukaten subjektu pasibo guztiak, eta, beraz, zerga hau ordaindu beharrik ez izatea izango da normalena. Zergaren betebeharriskalak bete egin beharko dira, aipatutako jarduera ekonomikoetakoren bat burutzen baldin bada.

Halaber, zerga honetatik salbuetsita daude erabilera publikoko deklaraturako fundazioak eta elkarteak, betiere elkartearen jarduerak zuzeneko harremana baldin badu elkartearen xede sozialarekin. Bestalde, salbuetsita daude, orobat, ezindu psikikoak eta sensorialak. Altan eman beharko dira beharrezko dokumentazioa aurkeztuz, salbuetsita egoteko eskakizunak betetzen dituztela frogatzeko, eta azkenean Udalak hartuko du erabakia.

Zerga hori Vitoria-Gasteizko Udalak izapidetzen du, Araba Jeneralaren kaleko 7. zenbakiko 2. solairuan dagoen Zerga Kudeaketan. Jarduera hasi aurreko 10 laneguneko epearen barruan egin behar da. Zerga hau izapidetzeko ezinbestekoa da dagokion inprimakia behar bezala beteta aurkezte, jarduera burutu behar duenaren IFKaren fotokopiarekin batera. Inprimaki hori eranskinetan erantsi da, eta 840. galdera-sortari dagokio, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari, alegia.

****Araudia:**

Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Araua, irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-erregimenari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriari buruzkoa.

Uztailaren 19ko 43/1989 Foru Araua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzkoa.

Balio Erantsiaren gaineko Zergako alta (gero salbuespena komunikatu arren)

Ondasunak entregatzea edo enpresari profesionalek egindako zerbitzu-emateak zergapetzen dituen zerga da BEZ. Zerga honen ondorioarako, enpresari edo profesional dira beren kontura ekoizpen materialak eta/edo giza ekoizpenak antolatzen dituztenak, ondasunen edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku-hartzeko helburuarekin. Horrela, bada, zerbitzuak emateko edo ondasunak banatzeko helburuarekin elkarte batek giza bitartekoak edo bitarteko materialak antolatzen dituen neurrian horri dagokion BEZ kobratzeko betebeharra izango du egindako ondasun-salmentengatik eta/edo emandako zerbitzuengatik, eta ondoren Foru Ogasunean sartu beharko du, aurrez Zergaren erroldan alta emanda. Hiru hilean behin elkarteak kalkulatu egin behar du elkarteak jasandako BEZaren eta jasanarazitako BEZaren arteko diferentzia, eta diferentzia hori ordaindu hemen: Foru Ogasuna.

Nolanahi ere, elkarteak doan egiten baditu eragiketa guzti-guztiak, ez dauka Zergaren erroldan altan jarri beharrik, ez baitu enpresari edo profesional izaerarik, eta, beraz, ez du Zerga jasanarazi beharko, hori guztia bere hornitzaileen BEZ jasateari dagokionez ondorioz edukitu gabe.

Garrantzitsua da kontuan izatea fakturak jaulki aurretik elkarteak altan egon beharko duela Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (ezer ez ordaindu arren).

Zergaren araudiak aurreikusten du zenbait zerbitzu salbuespenak daitezkeela, eskakizun jakin batzuk betetzen dituzten elkarteek emandakoak izateagatik (gizarte-laguntza, kirol zerbitzuak, kultur zerbitzuak eta estatutu-

kuoten ordainetan emandako zerbitzuak), hau da, BEZ kobratzea eskatzen ez dutenak. Edonola ere, beharrezkoa da Zerga Administrazioak aurrez onartzea zergatik salbuetsita daudela.

Salbuestea eskatzeko, ondorengo agiriak aurkeztu behar dira Foru Ogasunean:

- BEZtik salbuesteko inprimakia, behar bezala beteta (honekin batera erantsi da 035 dokumentua).
- Elkarteen estatutuen kopia.
- Elkarteen IFZ.
- Elkartea Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Eraketa-aktaren kopia.
- Elkartero idazkariaren ziurtagiria, idatziz jasotzen duena elkartero lehendakari-kargua ordaindutakoa edo doakoa den, estatutuetan ez bazaio erreferentziarik egiten egoera horri.

BEZtik salbuetsita egotean, elkarreak galdu egiten du kanpo-zerbitzuak emateko hornitzaileei BEZ gisa ordaindutako zenbatekoak (jasandako BEZ) berreskuratzeko eskubidea. Horregatik, kasu batzuetan, jasandako BEZren bolumena oso handia bada, elkarre batzuei ez zaie komeni izaten salbuestea eskatzea gizarte-laguntzako zerbitzuetarako, kirol-zerbitzuetarako, kultur zerbitzuetarako eta estatutu-kuoten ordainetan egindakoetarako.

Araudi honetan ez da bereizketarik egiten erabilera publikoko elkarre deklaraturako elkarteen eta fundazioen artean, gainerako elkarreekin alderatuta. BEZtik salbuetsita egoteko eskubidea edukitzeko, ondorengo eskakizunak bete behar dira:

- Irabazizko xederik ez izatea, eta, hala badagokio, aldizka lortutako mozkinak izaera berdineko salbuestitako jardueren garapenerako izatea.
- Lehendakari, patroiz eta legezko ordezkari karguek doakoak izan beharko dute, eta ez dute interesik eduki beharko bereaiek edo tartejarritako pertsona batek egindako ustiapenaren emaitza ekonomikoetan.
- Entitate edo establezimenduetako bazkide, erkide edo partaideak eta beren ezkontide edo odol

senideak, bigarren mailaraino, hori barne, ezingo dira izan salbuesitako eragiketen hartzaile nagusiak, eta ezingo dute baldintza berezietan gozatu zerbitzuak egitean (gizarte-laguntzako zerbitzuak eta kirol-zerbitzuak alde batera utzita).

****Araudia:**

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araua. Urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arau Emaila (ALHAO, 11. zk, 1993-01-29koa, Gehigarria).

Sozietateen Zerga

24/1996 Foru Arauaren zerga-erregimena.

-Irabazi-asmorik gabeko elkarteetako salbuespen partzialeko erregimen berezi bat dagokie, 24/1996 Foru Arauko 120. artikuluan eta ondorengoetan araututakoa.

Salbuespenak ez ditu barne-hartzen ustiapen ekonomikoetan ekitalditik eratorritako etekinak, ez eta ondaretik eratorritakoak edo zenbait ondare-gehikuntza.

-Erregimen berezi hau ez du subjektu pasiboak aurrez eskatu behar.

-Entitate horietako aplikagarri zaien karga % 25ekoa da.

-Sozietateen Gaineko Zergaren aitortzenaren aurkezpena 24/1996 Foru Arauko 129.3 artikuluan aurreikusitako kasuetan egingo da.

Izaera orokorrarekin elkarteak behartuta egongo dira euren errenta guztiak aitortzera, salbuesitakoak nahiz salbuesi gabek.

Edonola ere, aitortzen aurkezteko betebeharrak ez dute izango ondorengo eskakizunak betez gero:

- a) guztizko sarrerek urteko 100.000 euro ez gainditzea.
- b) atxikipena duten salbuesi gabeko errentei dagozkien sarrerek urteko 2.000 euro ez gainditzea.
- c) eskuratutako salbuesi gabeko errenta guztiek atxikipena izatea.



16/2004 Foru Arauko II. tituluan aurrez ikusitako zerga-erregimen berezia

- Uztailaren 5eko 16/2004 Foru Arauan, irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-erregimenari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriari buruzkoan, Sozietateen gaineko Zergari dagokionez aurreikusitako zerga-erregimena baliatu ahal izango dute Erabilera Publikoko elkarte deklaraturako elkarteek (ALHAO, 83. zk., 2004-07-21).

- Erregimen hau aplikatzeko aukera 16/2004 Foru Arauko 5. artikuluan aurreikusitako eskakizunaren betetzearen mende dago.

- Interesa duten entitateek 008 ereduaren bete beharko dute erregimen berezi horren alde egindako aukera komunikatzeko.

- Entitate hauei aplikagarri zaien karga-mota % 10ekoa da, eta salbuetsitako errenten eremua 24/1996 Foru Arauak ezarritakoa baino handiagoa da.

- Entitate hauek, edozein kasutan, Sozietateen gaineko Zergaren aitortpena aurkeztuko dute, ekitaldian eskuratutako errenta guztiak barne hartuta, kargatik salbuetsita egon ala ez, 16/2004 Foru Arauan aurreikusitako onurak aplikatzeari dagokionez ondorioz izan gabe; bestalde, egoki bada, txosten ekonomiko bat ere aurkeztu beharko dute, araudian ezarritako baldintzen arabera.

****Araudi aplikagarria:**

Uztailaren 5eko 24/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergarena

Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Araua, irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-erregimenari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriari buruzkoa.



Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga

Zerga hau ordaindu egin behar da ondasun higiezinaren (lokalen, lursailen...) jabe izateagatik, edo lurrazal-eskubide erreal baten edo gozamen-eskubide baten titularitatea edukitzeagatik, edo horien gaineko esleipen administratibo bat edukitzeagatik.

Zerga hau ordaintzeko, Vitoria-Gasteizko Udalera jo behar da, ondorengo agiriekin:

- Inprimakia, beteta.
- Transmisioan esku-hartzen duten pertsonen edo sozietateen NAN edo IFZren fotokopia.
- Kutxa edo banku bidez ordaintzeko: espresuki kontu korrontearen zenbakia jasotzen duen frogagiria edo dokumentua, edo libretoa arrunta.

****Araudia:**

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Araua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarena.